

# *Zeri begira dago?*

*Ane Gebara*

Duela bi urteko igande hotz batean -negua zen eta Gasteizen bizi naiz, beraz, ez da soilik poesiazo sentrazio polit bat-, benetan hotza egiten zuen arratsalde horretan, Mazokara joan nintzen; Mazoka, Alde Zaharrean kokatu zegoen ur biltegian egiten den ilustratzaileen azoka da. Gutxitan izan dut aukera ur biltegia jaisteko, baina egiten dudan bakoitzean urez inguratuta egon beharko nintzatekeela imajinatzen dut, eta arrapaletatik behera lamia edo sirena bat izango banintz bezala ibiltzen naiz. Bertan nagoela, hots eta zarata horiek itsas azpiko zaratak balira bezala entzuten ditut, eta bueltaka hasten naiz leku batetik bestera. Egun horretan jende asko zegoen eta lamia bat baino, sardina txiki bat sentitu nintzen. Hala ere, gustura nengoen haize bihurtutako uretan igerian.

Azokako postu, kolore, marrazki, marko, jende, argazki eta ilustrazio guztien artean han zegoen irudi hori. Zazpigarren postua zen, lehenago ikusitako gauza polit askoren eta falta zitzaizkidan hiruzpalau postuen artean, hori erosiko nuen. Zeri begira dago neskaila hori nik bera begiratzen dudan bitartean? Postuko emakume interesgarriari galdetu nion:

- Zuk marraztu duzu?

- Ez... gaur Patricia Villamarín ez dago. Asteburuan lana zuen kanpoan, eta ni etorri naiz bere ordean.

- Badakizu zeri begira dagoen?

- Ez... zuk zer uste duzu?

- Uf! Bikote bat nola musukatzen den begiratzen ari da. Edo bere laguna ezkutaketetara jolasteko zenbatzen bukatu, eta nora doan begira dago. Ez,

ez, ez! Bere amamak kozinatzen duen bitartean nola abesten duen begira dago! Edo... auskalo! hainbeste gauza, ezta? Oso polita da, bat eramango dut!

- Oso aukera ona! oparitarako?

- Ez, niretzat!

Egia esan, bi urte hauetan etxeko izkina desberdinetan jarri izan dut neskaitila hori, baina oraindik ez dut berarentzako leku perfektua aurkitu. Beharbada leku bakar batetik ikusten dituen gauzak ez dira nahikoak, auskalo. Gauza da, lekuz mugitzen dudan bakoitzean, zer begiratzen egongo den galdetzen diodala. Askotan berarekin jartzen naiz begira, eta biok batera begiratzen dugu. Momentu horietan lagun bihurtzen gara, eta sekretuak elkarrekin gordetzen ditugu.

Gaur komunera eramateko beharra sentitu dut. Crema eta bote batzuk dauden apalean jarri, boteak ezkerrera mugitu eta bera eskuman jarri dut, izkinan. Begira dagoen alde horretan bainera dago, eta baineraren atzealde ezkutua begiratzen dagoela dirudi. Ura datorren lekuetara begira balego bezala.




Baineraren txorrota ireki, ur beroa atera denean tapoia jarri, eta poliki-poliki ur beroaren lurrunarekin batera biluztu egin naiz. Tenperatura perfektuan dago ura. Momentu horretan elkarrekin amesten hasi gara.

Itsasoak korrante bero bat ekarri du kostaldera, eta barruan geunden marrazkiko neskatilari eta bioi barre konplize bat atera zaigu, norbaitek pixa egin balu bezala. Baina ez gara lekutik mugitu. Olatuak suabeak dira baina baten bat indartsu dator, olatu horiek aprobetxatu eta jolasten hasi gara. Eguzkiak goxo jotzen du.

Ez dakit nola baina neskatilari ura gustatzen zaiola uste dut. Hor utziko dut apal txiki horretan, nahi duen guztietan uraren jatorrira bidaiatu dezan. Nik noizbehinka bainu bat hartuko dut, sekretuak konpartitzen jarraitzeko.

Hurrengoan, agian, berriro elkartuko gara ezagututako leku horretan. Txorrota ireki eta ur biltegira bidaiatuko dugu. Espazio handi hori urez bete eta han pasako dugu goiza, leku batetik bestera mugitu eta zutabe sendoetan ur-ezkutaketetan jolastuko dugu.



Aste Santu honetan berriro bainatuko naiz.